

Irakaskuntza-laborategia
Laboratorio Docente 1.15

Irakaskuntza-laborategia
Laboratorio Docente 1.14

1.13

1.8

1.9

Ikasgela
Aula

Laburpena Resumen

KUDEAKETA ETA PLANGINTZA TXOSTENA 2020/2021 INFORME Y PLAN DE GESTIÓN

Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Facultad de Ciencia y Tecnología

www.ehu.eus/es/web/zientzia-teknologia-fakultatea

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	1
KALITATE POLITIKA BERRIKUSTEA.....	1
PROZESUEN MAPA.....	3
TITULU OFIZIALAK	4
PLAN ESTRATEGIKOAREN BETETZE-MAILA.....	4
PROZESUEN BERRIKUSKETA.....	7
EMAITZA NAGUSIAK.....	10
GRADU TITULAZIOEN ADIERAZLEAK	10
MASTER TITULAZIOEN ADIERAZLEAK	13
SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK.....	14
EKINTZAK	14
EGINDAKO EKINTZA BATZUK.....	14
2021/22ean ZEHAR EGITEKO PROPOSATU DIREN HAINBAT EKINTZA	15

AURKEZPENA

2020/21 ikasturtean eragin handia izan du COVID-19aren pandemiak. Jarduerak osasun agintariak espazioen eta distantzien edukierari buruz emandako neurrien arabera garatu ahal izateko, Fakultateak hainbat egokitzapen egin behar izan ditu. Hori dela eta, instalazioei dagokienez, streaming bidezko irakaskuntza ahalbidetzeko bideokonferentzia-ekipoak jarri behar izan ziren ikasgeletan, korridoreak eta igarobideak errotulatu ziren, irakaskuntza-espazioetan gel hidroalkoholiko-banagailuak jarri ziren eta ikasleentzako ikasketa-eremu berriak ireki ziren. Irakaskuntzaren plangintzari dagokionez, matrikulatutako ikasleen kopuruak ikasgelen gehienezko edukiera gainditzen zuenez, irakaskuntza bimodala jaso behar zuten taldeak zehaztu ziren. Halaber, ordutegiak berrantolatu ziren, ikasleek ahalik eta ordu presentzial gehien jaso zitzaten eta Fakultatean zeuden ikasleen kopurua ahalik eta txikiena izan zedin. Era berean, hainbat protokolo egin ziren, COVID positiboa edo COVID duten pertsonen kontaktu estua izanez gero, jarraitu beharreko urratsak azalduz, besteak beste. Araudi batzuetan aldaketa iragankorrak egin ziren, eta online modalitatera egokitu ziren hainbat jarduera, hala nola, ikasleentzako tailerrak eta hitzaldiak edo erakarpen-ekintzak. Horrek, osasun-egoera berrian eguneroko irakaskuntza-jarduerak garatzea erraztu zuen. Bestalde, ikerketari dagokionez, Ikerkuntza Jardunaldiak egin ahal izan ziren baina 2020ko martxotik 2020ko urrira mugituz eta online modalitatean burutuz. Ikerketa-taldeek ere ikerketa-lanari ekin ahal izan zioten berriro, 2020ko bigarren hiruhilekoan etenda egon baitzen osasun-egoeragatik.

Hala ere, pandemiak ez du eragotzi aurrera egitea ahalbidetuko diguten ekintzak egiten jarraitzea. Horrela, 2021eko lehen seihilekoan, barne-hausnarketarako taldeek Fakultateko indar guneei eta hobetzeko zeuden arloei buruz eztabaidatu zuten. Hausnarketa horren ondorioz, indarrean dagoen Plan Estrategikoan zehaztutako ardatzetan bildutako ekintza estrategikoak definitu ziren eta 2023ra arte luzatzea erabaki zen.

Azkenik, nabarmentzekoak dira Fakultateko langileen eta ikasleen laguntza eta konpromisoa, horiei esker posible izan baitzen 2020/21 ikasturtean COVID-19aren pandemiak ekarri zuen erroka arrakastaz gainditzea.

KALITATE POLITIKA BERRIKUSTEA

Zientzia eta Teknologia Fakultateko dekanotza-taldeak bere egin du kalitate eta bikaintasuneko kudeaketa sustatzeko konpromisoa, eta hala jasotzen da Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari (KBBS). Konpromiso horrek urteetan zehar egin diren jarduerak gidatu ditu dekanotza-talde desberdinak, gutizko kalitate printzipioan oinarrituz.

Honako hauek dira **prozesuaren mugarri nabarrienak**:

- Gogoeta estrategikoa, 2005-2010 eperako ikastegiaren lehenengo plan estrategikoa eman zuena (2005. urtean).
- Ikastegiko prozesuen mapa ezartzea (2005. urtea).
- Rudeaketarako bikaintasunari emandako zilarrezko Q-a lortzea (2006. urtea).
- Ikastegiko kalitate batzordea eratzea, KBBS-ren bermatzaile (2007. urtea).
- Ikastegiko prozesuen maparen lehenengo berrikusketa (2009. urtea).
- AUDIT programak KBBS akreditatzea (2010. urtea).
- Gogoeta estrategikoa, 2011-2015 eperako ikastegiaren bigarren plan estrategikoa eman zuena (2011. urtean).
- Ikastegiko prozesuen maparen bigarren berrikusketa eta UNIKUDE sistemara egokitzea (2013. urtea).
- AUDIT programak KBBS-ren ezarpena akreditatu eta zilarrezko A lortzea, MGA ereduaren arabera (2016. urtea).


- Administrazio akademikoaren zerbitzuko zerbitzuen karta (2017. urtea).
- Gogoeta estrategikoa, 2017-2020 eperako ikastegiaren hirugarren plan estrategikoa eman zuena (2017. urtean).
- Akreditazio Instituzionala (2018).
- Zentroko Prozesuen Maparen eta Sistemaren hirugarren berrikuspena, Fakultateari atxikitako masterren kudeaketa gehitzeko (2020).
- Zentroko Hirugarren Plan Estrategikoa 2023 urtera luzatzea eragin zuen barne-hausnarketa estrategikoa (2021).

Oinarri horren gainean kudeatzen dira ikastegiko bederatzi graduak eta gradu bikoitza, **KBBSren organo** hauek bidelagun izanik:

1. **Fakultateko batzarra:** Ikastegiaren kalitaterako politika eta helburuak onesteko ardura du, 2005-2010, 2011-2015, 2017-2020 plan estrategikoetan adierazitakoak, eta 2021-2023ra hedatzea eta azken ikasturtean burututako ekintza eta jardueren berri jasotzen duten urteroko kudeaketa-planetan adierazita. Fakultateko Batzarrari dagokio ikastegiko kalitate-batzordearen eta graduiko ikasketa-batzordeen eraketa, osaera eta funtzioak onartzea. Era berean, Fakultateko Batzarrari dagokio titulazioetarako proposatzen diren hobekuntza ekintzak onartzea, graduiko tituluen kalitatea bermatzeko sistemaren esparruan, besteak beste, graduetako jarraipen autotxostenak oinarri hartuta, graduiko ikasketen batzordeek egin eta kalitate batzordeak babestu eta aurkeztuta.
2. **Dekanoa:** Fakultatearen ordezkari akademiko gorena da, dekanotza-taldearen eta, bereziki, kalitate eta berrikuntzarako dekanordearen laguntzaz, fakultateko batzarrak onetsitako erabakiak betetzeko konpromisoa duena, hauen artean KBBS diseinatu, ezarri, berrikusi eta hobetzeko ardurak sartzan direlarik. Bere egiten ditu KBBSren dokumentuak, fakultateko batzarrari aurkezten dizkio ikastegiaren kalitate politika eta helburuak eta proposamena egiten dio ikastegiko kalitate-batzordearen eta graduiko ikasketa-batzordeen eraketa, osaera eta eginkizunak onar ditzan.
3. **Kalitate eta berrikuntzarako dekanordea:** KBBSk esleitutako arduraz aparte eta bestelako eginkizunen artean, ikastegiko prozesuen mapako prozesuak ezarri, mantendu eta berrikusi daitezela bermatu behar du, fakultatearen KBBS garatuta. Horrez gain, ikastegiak burutzen dituen berrikuntza programak koordinatzen eta sustatzen ditu, baita plan estrategikoak, kudeaketa-txostenak eta titulazioen jarraipen txostenak egin ere.
4. **Ikastegiko kalitate batzordea (IKB):** Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren plangintza eta jarraipen zereginetan dihardu aholkulari, eta, gainera, barne komunikaziorako tresna da kalitate-sistema honen politikaren, helburuaren, planaren, programaren, erantzukizunen eta lorpenen inguruan. KBBSren bermatzaile izatea du eginkizun nagusia. Honako hauek dira osakideak:
 - Dekanoa, batzordeburu gisa.
 - Kalitate eta berrikuntzaren arloko ardura duen dekanordea, idazkari gisa aritzen dena.
 - Irakasle-ikertzaileen bi ordezkari, kalitatearen kudeaketan akreditatuak.
 - Fakultatean irakasten diren Gradu-titulazioetako koordinatzaileak.
 - Fakultateari atxikitako Masterreko Batzorde Akademikoetako lau ordezkari.
 - Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonaleko ordezkari bat.
 - Graduiko ikaslegoaren ordezkari bat.
 - Graduondoko ikaslegoaren ordezkari bat.
5. **Graduiko ikasketen batzordeak (GIB):** Ikastegiko graduiko ikasketen curriculumen garapena, jarraipena, berrikusketa eta hobekuntza burutzeaz arduratzen dira. Fakultateko Batzarrak onartu zituen eginkizunak 2009ko maiatzaren 4an. Honako hauek dira osakideak gradu bakoitzeko batzordean:
 - Titulazioaren koordinatzailea, batzordeburu gisa aritzen dena.
 - 1., 2., 3. eta 4. mailako lau irakasle koordinatzaile.

- Halakorik egonez gero, beste koordinatzaile batzuk, eginkizunak graduako eremuan balituzte: gradu amaierako lana, kanpoko praktikak, laborategiko praktikak, landa praktikak, tutoretza plana eta beste.
 - Ikasleen bi ordezkari, ikasleen kontseiluak proposatuta.
- 6. Titulazioaren koordinatzaileak:** Irakasleak dira, dekanotza-taldeak izendatuta. Bakoitzak bere titulazioaren koordinazio horizontal eta bertikala du eginkizun nagusi, dagokion GIB-ren laguntzaz. Ikastegiko kalitate batzordeko kide ere badira. Aldi berean, informazioa bideratzen dute batzorde bi horien artean.
 - 7. Mailako koordinatzaileak:** Maila berean aritzen diren irakasleek beren artean aukeratutako irakasleak dira, izendapena fakultateko batzarrak onetsi behar duelarik. Mailako irakaskuntza-jarduerak behar bezala garatzen direla bermatzea du eginkizun, jarraipena egiteko behar den informazioa batuz.
 - 8. Bestelako koordinatzaileak:** Graduaren premien arabera, bestelako koordinatzaile batzuk egon daitezke GIB-en baitan, esaterako, landa praktikak, laborategiko praktikak, kanpoko praktikak, gradu amaierako lana edo beste arduraren bat dutenak. Hauen izendapenak eta eginkizunak mailako koordinatzaileen antzekoak dira. Hauen jardute-eremua ikasleek egindako jarduerak mugatzen dituzte, zein bere koordinazio-eremuan.
 - 9. Masterreko Batzorde Akademikoak (MBA):** Masterreko titulazioen kudeaketa prozesuan parte hartzen dute, eta ikasketa horien curriculumaren garapen egokiaz, jarraipenaz, berrikuspenaz eta hobekuntzaz arduratzen dira. Fakultateko Batzarrak bere izendapena onartzen du.
 - 10. Masterreko arduradunak:** EHU/UPVko Masterreko irakasleen artean izendatzen dira. Besteak beste, masterraren jarraipena egiten dute, eta, hala badagokio, baita memoria akademikoan eta irakaskuntza-gidan ezarritako ikasleen praktiken jarraipena ere, masterraren beharrak eta gabeziak identifikatzen dituzte, masterraren ohiko garapenean sortzen diren gorabeherak konpontzen dituzte eta masterraren kudeaketa ekonomikoaz arduratzen dira. Fakultateko Batzarrak bere izendapena onartzen du.

PROZESUEN MAPA



TITULU OFIZIALAK

GRADUAK

Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza (FIE)
 Biologiako Gradua (B)
 Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua (BRBM)
 Bioteknologiako Gradua (BT)
 Fisikako Gradua (FIS)
 Geologiako Gradua (GEO)
 Ingeniaritza Elektronikoko Gradua (IE)
 Ingeniaritza Kimikoko Gradua (IK)
 Kimikako Gradua (KIM)
 Matematikako Gradua (MAT)

GRADUONDOKOAK

Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Erasmus Mundus Masterra (EMECT+)
 Itsas Ingurumena eta Baliabideak Erasmus Mundus Masterra (EMMER)
 Mikrouhinetako Elektronika eta Optika Berritzaileak Erasmus Mundus Masterra (EMMIMEO)
 Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa Unibertsitate Masterra (MBF)
 Biologia Molekularra eta Biomedikuntza Unibertsitate Arteko Masterra (MBM)
 Ingeniaritza Kimikoa Unibertsitate Arteko Masterra (MIQ)
 Ingurugiroaren Agrobiologia Unibertsitate Arteko Masterra (MAA)
 Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Unibertsitate Masterra (MCTA)
 Kimika Sintetiko eta Industriala Unibertsitate Arteko Masterra (MQS)
 Material Berriak Unibertsitate Arteko Masterra (MNM)
 Modelizazioa eta Ikerkuntza Matematikoa eta Konputazioa Unibertsitate Arteko Masterra (MM)
 Paisaiaren Kudeaketa. Ondarea, Lurraldea eta Hiria Unibertsitate Masterra (MGP)
 Zientzia eta Teknologia Kuantikoak Unibertsitate Masterra (MCTC)

PLAN ESTRATEGIKOAREN BETETZE-MAILA

1. Ardatza. Irakaskuntza

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.1.1. Ikasleen formakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea	2017/18	%53
	2018/19	%73
	2019/20	%77
	2020/21	%80
HE.1.2. Ikasleen nazioartekotzea sustatzea	2017/18	%65
	2018/19	%92.5
	2019/20	%96.25
	2020/21	%97.5
HE.1.3. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea	2017/18	%60
	2018/19	%80
	2019/20	%90
	2020/21	%93.3
HE.1.4. Graduondoko formakuntza eskaintza laguntzea eta hedatzea	2017/18	%75
	2018/19	%92.5
	2019/20	%95
	2020/21	%97.5

2. Ardatza. Ikerketa

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.2.1. Ikerketa jardueri buruzko ezagutzak hobetzea	2017/18	%0
	2018/19	%0
	2019/20	%30
	2020/21	%90
HE.2.2. Ikerketa-taldeen arteko harremana laguntzea	2017/18	%50
	2018/19	%75
	2019/20	%75
	2020/21	%82.5
HE.2.3. Ikerketa-taldeak laguntzea	2017/18	%76.67
	2018/19	%86.67
	2019/20	%90
	2020/21	%93.33

3. Ardatza. Pertsonak


HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.3.1. Ikastegiko langile eta ikasleei egindako harrera eta aintzatespena hobetzea	2017/18	%33.33
	2018/19	%91.67
	2019/20	%100
	2020/21	%100
HE.3.2. AZP/IIParen parte-hartzea sustatzea Fakultateko ekintzetan eta proiektuetan	2017/18	%87.5
	2018/19	%100
	2019/20	%100
	2020/21	%100
HE.3.3. AZP/IIParen garapen profesionala hobetzeko tresna berrien inguruko formakuntza sustatzea	2017/18	%35
	2018/19	%65
	2019/20	%90
	2020/21	%100
HE.3.4. Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea	2017/18	%52
	2018/19	%70
	2019/20	%89
	2020/21	%96

4. Ardatza. Kudeaketa, Berrikuntza eta Erantzukizun Soziala

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE. 4.1. Hezkuntza-berrikuntza bilatzen duten proiektuak babestea IIParen parte-hartzea sustatuz	2017/18	%0
	2018/19	%37.5
	2019/20	%37.5
	2020/21	%50
HE.4.2. <i>Benchmarking</i> a sustatzea beste ikastegi batzuekin	2017/18	%50
	2018/19	%70
	2019/20	%75
	2020/21	%75
HE.4.3. Aurrerapenak egitea kudeaketa aurreratuko sistema inplementatzeko prozesuan	2017/18	%21.67
	2018/19	%40
	2019/20	%60
	2020/21	%68.33

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE-MAILA
HE.4.4. Erantzukizun Sozialen ekintzak sustatzea	2017/18	%38.33
	2018/19	%48.33
	2019/20	%53.33
	2020/21	%53.33
HE.4.5. Dibulgazio zientifikoa sustatzea gizartean	2017/18	%57.5
	2018/19	%67.5
	2019/20	%75
	2020/21	%77.5

Plan Estrategikoaren betetze-maila



Oharra: Betetze-mailaren kalkuluan, bai helburu estrategikoetan, bai ardatzetan, ez dira kontuan hartu Plan Estrategikoa 2023ra luzatzearen ondorioz horri gehitutako ekintza berriak; izan ere, 2020/21 ikasturtearen amaieran onartu ziren. Helburu estrategikoen betetze-mailarekin ere ez dira jasotzen tauletan Plan Estrategikoaren hedapenean sartutako helburu estrategiko berriak.

ONDORIOAK

1. ARDATZA- Plan Estrategikoa 2023ra luzatzeko 2021eko lehen seihilekoan egindako barne-hausnarketaren ondorioz, 9 ekintza estrategiko berri gehitu dira 1. Ardatzaren (irakaskuntza) helburu estrategikoetan.

Ardatz honi lotutako Plan Estrategikoko hiru ekintza itxi dira, izan ere, sortu zireneko helburua bete da. Horrela, Planaren hasieran aurreikusitako helburuetatik, hiru baino ez dira falta betetzeko. Hala ere, ia betetzear daude (%90, %80 eta %95). Halaber, Plan Estrategikoan ardatz horretarako aurreikusitako ekintza gehienak oso aurreratuta daude, 2021eko uztailaren 21ean Fakultateko Batzarrean onartutako Plan Estrategikoaren luzapenean jasotako ekintzak izan ezik.

2. ARDATZA- Ez da aurrerapen nabarmenik egin 2.ardatzari (Ikerketa 2020ra arte) dagozkion Plan Estrategikoan programatutako ekintzetan. Plana 2023ra arte luzatzeko barne-hausnarketa 2021eko lehen seihilekoan egin zenez, ekintza estrategiko berri bat baino ez da sartu HE.2.3 helburu estrategikoaren barruan.

2020/21 ikasturtean nabarmen aurreratu dira HE.2.1 helburu estrategikoari lotutako ekintzak; izan ere, horietako bat bete da, eta bestea, %80ra arte aurreratuta dago. Halaber, HE.2.3 helburu estrategikoaren beste ekintza bat itxi da, eta betetzeke geratzen diren laurek %80ko edo gehiagoko betetze-maila dute.

3. ARDATZA- Plan Estrategikoa 2023ra luzatzeko 2021eko lehen seihilekoan egindako barne-hausnarketaren ondorioz, bost ekintza estrategiko berri gehitu dira 3. Ardatzako (Pertsonak)

H.E.3.3 eta H.E.3.4 helburuetara. Plan Estrategikoaren luzapena 2021eko uztailaren 21ean, Fakultateko Batzarrean, onartu zenez, 2020/21 ikasturtean oso denbora gutxi izan zen ekintza berri horiek lantzen hasteko. Dena den, 2017an planifikatutako ekintzetan aurrerapenak eman dira, aurreikusitako ekintzetatik bi burutu direlarik, eta gainerako biek %90eko betetze-maila dutelarik.

4. ARDATZA- 2021eko lehen seihilekoan egindako barne-hausnarketaren ondorioz Plan Estrategikoa 2023ra luzatu ondoren, beharrezkoa izan da Kudeaketa, Berrikuntza eta Erantzunkizun Soziala izeneko 4. ardatzean bi helburu estrategiko berri (HE.4.6 eta HE.4.7) sartzea. Helburu estrategiko berri horien barruan, 4 ekintza berri planteatzen dira (bat HE.4.6 helburuan, eta 3 HE.4.7 helburuan).

Burututako bi ekintza amaitutzat jo dira, aurreikusitako helburua lortu delako. Gainera, hirugarren ekintza bat itxi da, izan ere, AZLen mugikortasunaren eta datozen bi urteetara begira ezjakintasuna ekarri duen osasun-egoeraren ondorioz, ezin izan baita gauzatu (%15eko betetze-mailarekin itxi da). Halaber, pandemiak Planaren hasieran programatutako sei ekintzetako batzuetan aurrera egitea eragotzi du. 2021eko uztailera arte, ekintza horien betetze-maila %65 eta %90 artekoa zen. Hala ere, osasun-egoera berari esker, eta hedabideen bidez, Fakultatean pandemiari buruz dagoen ezagutza nabarmen zabaldu ahal izan dute Fakultateko kideek.

Azkenik, gainerako ardatzetan bezala, Plan Estrategikoaren luzapena 2021eko uztailaren 21eko Fakultate Batzarrean onartu zenez, 2020/21 ikasturtean oso denbora gutxi izan da ekintza horietan lanean hasteko.

PROZESUEN BERRIKUSKETA

1. PROZESUA. PLANGINTZA

2020/21 ikasturtean egindako barne-hausnarketan, Fakultatearen Plan Estrategikoa 2023ra arte luzatzea onartu zen. Bertan, Zentroaren barneko interes-taldeetako 70 pertsonak hartu zuten parte.

Harremanetan egon dira UNIBASQeko zuzendariarekin eta Gradu Errektoreordearekin, Kimikako graduan ibilbide bikoitza sartzeko. 822/2021 Errege Dekretu berria garatu gabe dagoenez, baina, proposatutako norabidean aurrera egitea eragozten duen egoera iragankor baten aurrean gaude. Halaber, Fakultateko Gradu ikasketen eskaintza egokia den aztertuko da, baita 822/2021 Errege Dekretuarekin bat datorren ere, eta hala badagokio, ikasketa horietan egokitzapenik egin behar den ere aztertuko da. Azkenik, nazioarteko titulu bakoitzaren eskaintzaren egokitasuna aztertuko da.

Graduko ikasketen batzordeen eta masterreko batzorde akademikoen konpromisoari esker, titulazioen garapenaren jarraipen egokia egin daiteke. Adibidez, Fakultateko titulazioetako sarrera-profilak eta sarbide-profilak berrikusi dira, eta ezarritako helburuetarako egokiak dira.

Ikasleek parte-hartze handiagoa izan dute fakultateak antolatutako jardueretan, bai orientazio akademikoarekin eta profesionalarekin lotutakoetan, eta baita prestakuntza osagarrian ere.

2. PROZESUA. GRADUA

2020/21 ikasturtean COVID-19aren pandemiak eragin handia izan zuen arren, Gradu ikasketa batzordeen konpromisoari esker, ikasturtea gorabehera nabarmenik gabe gainditu ahal izan da. Gainera, haien konpromisoari esker, egoera zail honetan hobekuntza-ekintza batzuk egin edo abian jarri ahal izan dira, eta horiek modu positiboan eragin diote graduen martxari.

Erakapen-ekintzen kopuruaren beherakada nabarmena pandemiak eragindako baldintzen ondorioa izan da. Hala ere, pandemiaren egoeraren hobekuntzarekin batera, jarduera horiei berrekin ahal izatea espero da. Langileen parte-hartzea maila altuan mantendu da. Are gehiago, jarduera bakoitzeko langileen batez bestekoak 10etik 25era egin du gora.

Sarrera berriko ia plaza guztiak betetzeak, edota sarbideko batez besteko notaren igoerak (bereziki Fakultateak eskainitako bi ingeniaritzetan, puntu bat egin baitu gora 2019/20 ikasturtearekin alderatuta), Fakultatean eskaintzen diren gradu etako ikasketen eskaria altua

dela frogatzen dute. Nabarmentzekoa da Fakultateko 10 titulazioetatik 7tan batez besteko sarbide-nota 12 puntutik gorakoa dela.

Geologiako Gradurako, eta bere Ikasketa Batzordearekin lankidetzan, batxilergoko ikasleen artean irakasgai horien aukeraketa sustatzeko lana egingo da. Halaber, onarpen-adierazleak hobetzeko Geologiako eta Ingeniaritza Kimikoko graduatan ekintzak abiarazi dira.

COVID-19ak eragindako osasun-krisia 2019/20 ikasturtean hasi zen, baina jarraipena izan du ondorengo ikasturte honetan. Horren ondorioz, irakaskuntzaren hainbat egokitzapen egin behar izan dira: modu presentzialean talde batzuk eta bimodalean besteak. Horretarako, oso garrantzitsua izan da graduen eta mailen arteko koordinazioa. Halaber, ikasleei zuzendutako sustapen-jarduerak eta formakuntza osagarriko tailerrak osasun-egoera berrira egokitu behar izan dira. Bestalde, behera egin du mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleen kopuruak eta, aldi berean, enpresetan praktikak egiten dituzten ikasleen kopuruak nabarmen egin du gora. Praktiketako ikasleekin enpresek duten gogobetetze-maila oso altua da.

Bestetik, 2021/22 ikasturtearen prestakuntza konplikaturia izan da, izan ere, ezjakintasun handia zegoen pandemiaren garapenaren inguruan. Horren ondorioz, 2021/22 ikasturtearen plangintza hainbat aukera kontuan hartuta egin behar izan da (% 100eko presentzialtasuna eta bimodalitatea).

Ikasketa-tasa (errendimendua, arrakasta) altua da ZTF-FCTko gradu gehienetan, batzuetan oso altua izatez, aurreko ikasturtearekin alderatuta gehienetan beherakada txiki bat egon den arren. Gertaera hori, 2019/20 ikasturtean pandemiaren ondorioz izandako ebaluazio-prozesuko aldaketei lotuta egon daiteke. Izan ere, pandemiaren aurreko ikasturteetako tasen balioak berreskuratu dira, eta horrek Graduen egonkortasunean eta maila horietako ikasleen homogeneotasunean pentsatzera garamatza. Hala ere, bi kasu aipatu behar dira bereziki: Geologia eta Ingeniaritza Elektronikoa. Lehenengoa, ikaskuntza-tasak oso eskasak direlako eta ez dirudielako hobera egiten ari denik, eta horrek uzte-maila oso altua eta graduazio-tasa baxuak dakartza. Ingeniaritza Kimikoko Graduoko graduazio-tasa ere hobetu daiteke.

3. PROZESUA. GRADUONDOKOA

COVID-19aren pandemiagatik ere, 2020/21 ikasturtearen garapenean eragina izan duena, masterreko batzorde akademikoek hainbat hobekuntza-ekintza eta aldaketa jarri dituzte abian haien ikasketa-planetan, titulazioen berrikuspenetan hauteman dituzten hobekuntza-arloak arintze aldera. Haien konpromisoari esker, posible da ikasleei eskaintzen zaizkien masterrak hobetzea.

Osasun-egoera dela eta, atzerriko ikasleen matrikulazio-tasa aurreko ikasturteetako baxuagoa izan da. Hala ere, plaza guztiak bete dira. Nabarmentzekoa da graduondoko eskaintza zabaltzeko ahalegin berri bat egin dela 2020/21 ikasturtean, eta horren eragina aztertu egin beharko dela 2021/22 ikasturteko matrikulazioan.

Oro har, Master titulazioetako ikaskuntza-adierazle nagusien bilakaera oso ona da. Hala ere, balio baxuenak dituzten titulazioen emaitzak hobetzeko lan egin behar da. Masterreko ikasleek praktikak egin ohi dituzte beren ikasketetan, beren prestakuntza osatzen dute eta kanpoko praktikei dagozkien gaitasun espezifikokoak eskuratzen dituzte. Hala ere, ikasle gutxiak hartzen dute parte mugikortasun programetan.

4. PROZESUA. IKERKETA

Ikerketari eta formakuntzari dagokienez, Fakultateak maila altua du. Horren seinale dira argitalpenen, ikerketa-proiektuen, patenteen eta besteen hazkundera. Hala, eta doktoratu aurreko ikertzaileak kontratatzeko finantziaketa mugatua izan arren, 2020/21ean defendatutako tesien kopuruak (82) gora egin du 2019/20 ikasturtean erregistratutakoarekin (70) alderatuta.

5. PROZESUA. GIZA BALIABIDEAK

Fakultateko langileek ezin hobe erantzun dute COVID-19aren pandemiak aurkeztutako erronken aurrean. Gainera, kudeaketa-lanetan izan duten inplikazioa ere nabarmena izan da, 200 pertsona ari baitira koordinazio-lanetan eta batzordeetan parte hartzen. Hala ere, ildo

horretan jarraitu ahal izateko, beharrezkoa da irakasle eta ikertzaileen lehengoratzetarako eustea eta teknikarien eta mendekoen plazen hornidura handitzea. Azken horien kasuan, eta haien defizita arintze aldera, barne-berrantolaketa egingo da kategoriatan. Bestalde, nabarmentzekoa da ikasleen ordezkarietako parte-hartze handia izan dutela dekanotaldearekin egindako bileretan.

Azkenik, COVID-19aren pandemiagatik 2020/21ean ezinezkoa izan zenez graduazio-ekitaldia egitea (Zentroko langileei ere aitortzen zitzaizkien bertan), aitortzen ziren beste ekitaldi batzuetan sartzeari erabaki zen. Egoerak hobera egin duenez, hurrengo ikasturteetan ere langileak aitortzeko ekitaldiak egingo dira, 2020/21ean bezala.

6. PROZESUA. EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIOA

Fakultateak behar bezala kudeatzen du Aurrekontua, eta neurri handi batean irakaskuntza-jarduerei laguntzeko erabiltzen du. Hala ere, 2020/21ean handitu egin da gastua, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko hartu beharreko neurrien eraginez.

Fakultateko Zerbitzuek egiten duten kudeaketan hobekuntzak ezarri dira (formularioak, web berrikuspena), eta horiek erabiltzaileen gogobetetasunean islatzen dira. Ildo horretatik jarraituz, erabiltzaileen gogobetetasuna hobetzeko metodo berriak bilatuko dira (adib. Idazkaritzan aurretiko-hitzordua ezartzea).

7. PROZESUA. BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK

Lokal eta zerbitzuei dagokienez egindako kudeaketaren balorazioa positiboa da; izan ere, aurreko jardutearen antzeko hobekuntza-ekintzak egin dira azpiegituren arloan, pandemia-egoerak jarraitu duen arren. Ekintza horiek mantendu eta hobetu nahi dira, lan-baldintza hobekitzeko.

Bestalde, segurtasunaren eta prebentzioaren arloan ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak egin dira, eta emaitza onak lortu dira. COVID-19aren kutsatzeak saihesteko segurtasun-neurriak eta protokolo zehatzak hobetu dira.

Ingurumen-hobekuntzari dagokionez, sortutako hondakinen kopuruak behera egin du, izan ere, horien kudeaketa egokitu dugu; aipatu beharra dago jarduera presentzialaren txikiak ere eragina esan duela. Hurrengoko urteetan adierazle honen eboluzioa aztertuko da. Ildo horretatik jarraituz, ingurumena hobetzeko taldearen bilerekin ekingo zaie berriro, baliabideak optimizatzeko.

8. PROZESUA. EUSKARA ETA ELEANIZTASUNA

Doktorego-tesien defentsa euskaraz egiten dutenen kopurua maila nahiko onean mantendu da. Halaber, euskaraz irakatsitako irakasgaien ehunekoa aurreko ikasturteetakoaren antzekoa da. Dena den, interesgarria litzake euskaraz hautagai gutxi dituzten hainbat gradutan GrAren eta hautazkoen aukeraketa euskaraz egitera bultzatzea. Derrigorrez euskaraz diren irakasgaietako dagokienez, 2020/21 ikasturtean Fakultateko graduatuko irakaskuntza-eskaintza osoan, derrigorrezko irakasgai guztiak euskaraz ematen ziren, bi izan ezik. Horietako bat euskaraz emango da 2021/22 ikasturtean, eta bestea, seguruenik, 2022/2023an.

9. PROZESUA. KOMUNIKAZIOA ETA PROIEKZIO SOZIALA

Informazioaren komunikazioak bilakaera positiboa izan du. Horrela, handitu egin agerpenen kopurua komunikabideetan. Arlo horri dagokionez, webgunea hobetzeko lanean jarraituko dugu.

Fakultatera praktikak egitera etorri diren Lanbide Heziketako ikasleen kopurua handitu egin da, eta Zientzia Fikziozko Lehiaketara kontakizun ugari aurkeztu dira, baina horiek alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzak ezarritako murrizketen ondorioz, 9.2 Gizartearekiko Elkarreragina prozeduraren gainerako adierazleek behera egin dute.

Aurreko ikasturteetan Fakultateko ikasle-elkarteetan ikasleek izan duten parte-hartzeak gora egin du. Fakultatean jasotako kontsulta guztiak erantzun dira.

10. PROZESUA. EBALUAZIOA, BERRIKUSKETA ETA HOBEKUNTZA

Zegozkien interes-talde guztiei egin zaie inkesta. 2020/21ean iritzia jaso ez zitzaien interes-talde bakarrak AZL eta Irakasleak eta Ikertzaileak izan dira, izan ere, haien gogobetetzea EHUko Errektoretzak bi urtean behin egindako inkesta baten bidez neurtzen da. Hala ere, COVID-19aren pandemiak eragindako premiei buruz duten iritzia ezagutzeko inkesta egin zaie irakasle eta ikertzaileei.


Beharakada bat egon da ikaslegoari egindako gogobetetze-inkesten erantzunetan. Datozen ikasturteetan ikertuko da unean uneko gertaera bat izan den, hau da, COVID-19aren pandemiaren ondorioz hainbat ekitalditan egindako aldaketen ondorioa, hala nola Ongietorri Ekitaldia online egin izana edo beste batzuk bertan behera utzi izana (adib. Graduazio ekitaldia), edo parte-hartzea areagutzeko hobekuntza-ekintzaren bat egin behar den.

2020/21 ikasturtean gorabeheren kopuruak pixka bat gora egin du irakasleen irakaskuntzari buruz ikaslegoari egindako gogobetetze-inkestetan, irakaskuntzaren bimodalitasunagatik eta ikasgelan inkestak egiteko prozedura aldatzeagatik. Unean uneko egoera da, eta ez litzateke %100eko presentzialtasunarekin errepikatu behar. Nabarmentzekoa da bimodalitasunak eragindako prozeduraren konplikazioaz gain, inkestak pasatzen dituzten irakasleen ehunekoa mantendu egin dela.


Sistemaren berrikuspena eta hobekuntza egin da, 10.3 Berrikuspena eta Hobekuntza prozeduraren arabera. Nabarmentzekoa da prozesu-sistemako arduradunek eta parte-hartzaileek proposatutako hobekuntza-ekintzen kopurua. Horrek ondo funtzionatzen duela frogatzen du.

EMAITZA NAGUSIAK


GRADU TITULAZIOEN ADIERAZLEAK




Graduen okupazioa




Egokitzapen-tasa




Errendimendu-tasa




Ikasketen uzte-tasa



Ikasketak amaitu dituztenen kopurua




Enplegu-tasa




MASTER TITULAZIOEN ADIERAZLEAK


Masterren okupazioa



Errendimendu-tasa



Ikasketak amaitu dituztenen kopurua



SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK

ADIERAZLEA	20/21	19/20	18/19	17/18	16/17
2.6p Mugikortasun programetan parte hartu duten egresatuen ratioa	17.97	23.39	19.66	24.32	18.40
2.7a Curriculumeko edo curriculumetik kanpoko praktikak egiten ari diren ikasleen kopurua	341	244	271	261	205
3.2c Erasmus Mundus ez diren masterretako batez besteko okupazioa	74.7	75.31	-	-	-
4.1d IIPen ISI argitarapenen ratioa	1.21	1.14	1.15	1	0.93
4.1i Defendatutako Tesien kopurua	82	70	80	102	99
Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile doktoeren %a	86.17	88.02	85.95	87.2	88.33
Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile iraunkorren %a	72.82	74.57	72.38	76.33	77.86
6.1b Irakaskuntza jardueri eskainitako aurrekontu arrutaren %a	49.95	77.03	62.83	81.98	77.16
6.1e Ikerketa taldeei laguntzeko eskainitako zentroko urteko aurrekontuaren %a	16.02	10.2	26.59	8.49	
7.2d Zentroan garatu eta zabaldu diren ingurumen hobekuntzarako ekintzen kopurua	4	5	6	6	6
8.1c Euskaraz egindako GrALen %a	37.52	43.88	37.59	34.88	37.59
8.2h Ingelesez irakasten diren irakasgaien kopurua	34	35	34	30	
8.2i EFC irakasgaien kopurua	71	76	61	39	
9.2c Kanpoko erakunde eta instituziokin hitzarmen eta kolaborazio kopurua	15	13	40	11	5
DOCENTIAZ bidez ebaluatutako IIPen %a	53.05	48.81	43.04	35.99	30.65

ERINTZAK

EGINDAKO EKINTZA BATZUK

- 1.- Indarrean dagoen Plan Estrategikoa 2021-2023ra luzatzeko barne-hausnarketa estrategikoa.
- 2.- Fakultateko prozesu-sistemaren berrikuspen sakona.
- 3.- COVID-19a kontuan hartuta, Graduoko ikasketetarako presentzialtasun mapa definitzea.
- 4.- Estatuko unibertsitateetan Fakultateko graduondoko eskaintza zabaltzea.
- 5.- GAUR bitartez Master ikasketetako kanpo-praktikak kudeatzea.
- 6.- ADDI plataformaren bidez, MALak kudeatzea.
- 7.- COVID-19aren aurkako osasun-gomendioak jarraituz, Fakultateko espazioetan osasun-baldintzak betetzeko neurriak hartzea.
- 8.- Ikasgeletan bideokonferentzia-sistemak instalatzea.
- 9.- Mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleen matrikularen prozesua hobetzea (Outgoing).
- 10.- Hurrengo liburu hauen aurkezpena: «Amets bikoitza, Euskara zientifikotzea eta zientzia euskaratzea. Zientzia eta Teknologia Fakultatearen historia euskalduna» eta «50 urte Zientzia eta Teknologia zabaltzen / 50 años divulgando Ciencia y Tecnología».
- 11.- Graduoko ikasketetan eta Masterretan hainbat egokitzapen egitea (euskaraz edo ingelesez ematen diren irakasgaien kopurua handitzea, Masterretako irakasgaietako ikasleen gidak eguneratuz edo Masterretako hautazko irakasgaiak ordezkatzuz).
- 12.- GIB eta Masterreko Batzorde Akademikoek gidatutako titulazioak hobetzeko ekintzak.

2021/22ean ZEHAR EGITEKO PROPOSATU DIREN HAINBAT EKINTZA

- 1.- Plan Estrategikoa 2021-2023ra luzatzean gehitutako ekintza estrategiko berriak planifikatzea eta lehenestea, horien gauzatzea bultzatzeko.
- 2.- Enpresak Aurkezteko Jardunaldia berriz diseinatzea.
- 3.- 2021/22 ikasturteko irakaskuntza COVID-19ak eragindako osasun-egoeraren arabera planifikatzea.
- 4.- Master Amaierako Lanak entregatzeko 2020/21ean egindako protokoloaren araberako esperientzia aztertzea, eta detektatutako puntu ahulak zuzentzeko protokoloan aldaketak egitea.
- 5.- Masterreko ikasle egresatuak Fakultateko ikasle egresatuen aintzatespen-ekitaldiaren barne sartzea.
- 6.- 4.1 Ikerketa prozedurari lotutako adierazleen balioak lortzeko modurik onena zehaztea.
- 7.- Inkesta bat diseinatu eta zabaltzea, Fakultateko irakasleen eta ikertzaileen berrikuntzako prestakuntza-beharrak ezagutzeko.
- 8.- Fakultateko langileen aintzatespena berriro programatzea.
- 9.- Dei bidezko edo aurrez aurreko izapideak egiteko Idazkaritzan aurretiko-hitzorduaren zerbitzua abian jartzeko aukera aztertzea.
- 10.- Ikaslegoarentzat ordenagailuak eta armairuak erostea.
- 11.- Fakultateko administrazioko langileentzat bulegoak egokitzea.
- 12.- Kultur jarduera gehiago euskaraz edo ofizialak ez diren hizkuntzetan egiteko edo GrALaren euskarazko eskaintza handitzeko nondik hasi aztertzea.
- 13.- Fakultateko Intraneta berrikustea eta eguneratzea.
- 14.- Fakultatearen webgunea bi hizkuntza ofizialetan eguneratzea eta ingelesezko bertsioa gehitzea.
- 15.- Jarraipen-txostenetan agertzen diren masterren adierazleetan mugak jartzea. UPV/EHUko zerbitzu zentralak dute master horien ardura, eta, beraz, ez daude gure Fakultateko kudeaketa-sisteman sartuta.